✞ **JAINKOAREN BILDOTSA/ AGNEAU DE DIEU :** *A 87*

Bake dosean da jendea, bake zorion ekarlea :
nitan, zu baitan, gu baitan, denetan, bakea dagola orotan.

Jainkoaren bildotsa, munduko bekatua kentzen duzuna, urrikal Jauna ! (x2)
Jainkoaren bildotsa, muduko bekatua kentzen duzuna, emaguzu bakea
La paix, elle aura ton visage, la paix, elle aura tous les âges,
La paix sera toi, sera moi, sera nous, et la paix sera chacun de nous

♬ **KOMUNIONEA / COMMUNION**

1- Kristo ganik zerk urrun, nork berex gu ?
Jainko dugu : gu baitan da bizi.
Dugularik lan, gudu, gaitz eta min,
Kristorekin lur huntan zerk izi ?

Ikusten dut zerua zabaldua :
han behar dut egun batez sartu.
Bai, Kristok du mundua garaitua :
zeruraino eremanen gaitu.

2- Mundukoen zaintzale gurekin da :
hari galda goi argi, goi indar.
Haren argi dirdiran, bat gaiten joan :
ilunbetan gaitzeri gaur oldar.

3- Odoletan da Kristo gu maitez hil,
gaiten ibil kar pizten gu ere.
Jautsia zen sor zadin lurrean su :
goazen kartsu lurrez lur sutzaile.

♬ **AZKEN KANTUA / ENVOI**

Zerua saritzat — *Couplets 1, 2, 4 eta 8*

1 Zerua saritzat : fededunak dohatsu,
bihotz-barnez izanik lurrean behartsu.

Zerua, zerua, zerua saritzat. (bis)

2- Zerua saritzat : bihotz urrikalkorrez
urrikalduren baita Jainkoa ordainez.

4- Zerua saritzat : harat itzul begiak,
salbatzaileak dio « Dohatsu eztiak » .

8- Zerua saritzat : bozkaria gaitezen,
zerua Jaunarekin lur huntan da hasten.



PÔLE MISSIONNAIRE AMIKUZE

OMIA SAINDU / TOUSSAINT

♬ **SARTZEKO KANTUA / CHANT D'ENTRÉE**

1- Sainduekin otoitz eta lan
dugun egin bizi huntan.
Zeruraino gaiten denak joan,
zerukoek, esku eman !

Egiazko denen Herrian
Kristok denak han bil gaitzan,
gu lurrean, zuek zeruan,
oraitik bat gaiten izan ! (bis)

2- Apostolu eta Martirak,
baginitu zuen karrak :
fedearen goiko dirdirak
argi ditzan herritarrak.

3- Apezpiku, apez sainduak
ardientzat higatuak,
zuen baitan bizi zen suak
pitz ditzala epelduak.

✞ **BEKATUEN URRIKIA/ KYRIE**



♬ **AINTZA / GLORIA (A 8)**

Aintza zeruetan Jaungoikoari,
eta bakea lurrean haren gogoko gizoneri.
Hain haundi ta eder zaitugulakotz, gora zu,
benedikatua zu, gorespen zuri, ahuspez agur, eskerrak zuri.
Jainko Jauna, zeruko Errege, **Jaungoiko Aita, guziahalduna.**
Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo,
Jainko Jauna, Jainkoaren bildots, Aitaren Seme.
Zuk kentzen duzu munduko bekatua, **urrikal, Jauna.**
Zuk kentzen duzu munduko bekatua, **entzun gure deia.**
Aitaren eskuin-aldean jarririk zaude zu, **urrikal, Jauna.**
Zu bakarrik Saindua, **Zu bakarrik Jauna,**
Zu bakarrik Goi-goikoa, Jesu Kristo,
Izpiritu Sainduarekin: Jainko Aitaren argitan. Amen.

📖 **Lehen Irakurgaia– 1ère Lecture : Ap 7, 2-4.9-14**

Lecture de l'Apocalypse de saint Jean

Moi, Jean, j'ai vu un ange qui montait du côté où le soleil se lève, avec le sceau qui imprime la marque du Dieu vivant ; d'une voix forte, il cria aux quatre anges qui avaient reçu le pouvoir de faire du mal à la terre et à la mer : « Ne faites pas de mal à la terre, ni à la mer, ni aux arbres, avant que nous ayons marqué du sceau le front des serviteurs de notre Dieu. » Et j'entendis le nombre de ceux qui étaient marqués du sceau : ils étaient cent quarante-quatre mille, de toutes les tribus des fils d'Israël. Après cela, j'ai vu : et voici une foule immense, que nul ne pouvait dénombrer, une foule de toutes nations, tribus, peuples et langues. Ils se tenaient debout devant le Trône et devant l'Agneau, vêtus de robes blanches, avec des palmes à la main. Et ils s'écriaient d'une voix forte : « Le salut appartient à notre Dieu qui siège sur le Trône et à l'Agneau ! »

Tous les anges se tenaient debout autour du Trône, autour des Anciens et des quatre Vivants ; se jetant devant le Trône, face contre terre, ils se prosternèrent devant Dieu.


Et ils disaient : « Amen ! Louange, gloire, sagesse et action de grâce, honneur, puissance et force à notre Dieu, pour les siècles des siècles ! Amen ! » L'un des Anciens prit alors la parole et me dit : « Ces gens vêtus de robes blanches, qui sont-ils, et d'où viennent-ils ? » Je lui répondis : « Mon seigneur, toi, tu le sais. » Il me dit : « Ceux-là viennent de la grande épreuve ; ils ont lavé leurs robes, ils les ont blanchies par le sang de l'Agneau. » – Parole du Seigneur.

SALMOA 23 / PSAUME 23

Kantuz daudela zuri Jauna, badabiltzanak zure bila

Jainkoarenak mundua eta mundukoak,
Bai lurra eta lurrekoak.
Harek du lurra itsas gainean ezarria
Ibai artean hor jarria.

Nor iganen da Jainko Jaunaren mendiraino ?
Dagon tokian nor sartuko ?
Eskuak eta bihotza garbi dabilana,
Gezurretarat ez doana.



📖 **Bigarren irakurgaia / 2ÈME LECTURE 1 Jn 3, 1-3**

𝄞 **ALELUIA / ALLELUIA A 26** — *Urteaga*

📖 **EBANJELIOA / ÉVANGILE Mt 5, 1-12a**

📖 **Fedearen Aitormena / CREDO**

Sinesten dut Jauna — *R.I:* ***Sinesten dut Jauna, sinesten dut Jauna !***

1 – Jaungoiko bat bakarra, Aita guziz ahaltsu, zeru-lurren Egile.

2 – Jaun bakar Jesu Kristo, Jainko gizon egina, hiletarik piztua

3 – Izpirutu saindua, Jaun bizi emailea, sure sustatzailea.

4 – Sinesten dut Elza, Saindu Katolikoa, et'Apostoluena.

5– Sinesten dut naizela, hiletarik piztuko, Jaunarekin biziko.

FEDEDUNEN OTOITZA/ PRIÈRE UNIVERSELLE : *Erakuts guri, Jauna, zure bihotz ona*

✦ **EMAITZEN APAILATZEA / OFFERTOIRE**

Dohatsu bihotz garbiak,
ikusiko baitute Jainkoa !

1- Dohatsu bihotz barnez pobreak :
heiena baita zeruetako Erresuma.

2 -Dohatsu laño eta eztiak :
Jaunak hitzeman lurraz baitire jabetuko.

3- Dohatsu nigarretan direnak :
kontsolamendu izanen dute Jauna ganik.

4- Dohatsu zuzen gose direnak :
heien goseak bere asea ukanen du.

5- Dohatsu urrikalkor direnak :
urrikalmendu ardiestea segur dute.

✞ **SAINDU / SANCTUS** *A 66*

Saindu, Saindu, Saindu, Saindu zira Jauna, Saindua.
Diren guziak, zuk eginak dituzu. Hozana.
Benedikatua da, Jaunaren izenean datorrena. Hozana.

𝄞 **GORETS KANTUA / ANAMNÈSE**

Hau da sinestearen misterioa :

Hil eta piztu zirela, Jauna, Zu berriz etorri arte, hau dugu, hau, berri ona.

DOXOLOGIE: 3 Amen classiques

GURE AITA, zeruetan zirena : saindu izan bedi zure izena,
et or bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia
zeruan bezala lurrean ere.
Emaguzu gaur egun huntako ogia ; barkatu gure zorrak,
guk ere gure zorduner barkatzen diegunaz geroz,
ez gaitzazula utz tentaldian erortzen, bainan atera gaitzazu gaitzetik.

